

Donostia, 2016ko martxoaren 17a

IDAZKARI NAGUSIARI:

KONTROL MOZIOA, GIPUZKOAKO ANIMALIAK ETA LANDAREAK BABESTEKO ELKARTEA DELA ETA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordeak 2016ko martxoaren 14an izan zuen bileran Animaliak Babesteko Elkartearen inguruan egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2013ko ekainaren 3an, Gipuzkoako Animaliak eta Landareak Babesteko Elkartean egiten ari ziren praktika batzuen berri eman zioten Donostiako Ingurumen Fiskaltzari.

Hark Ertzaintzari igorri zion informazio hori, eta Ertzaintzak, hamar hilabetez ikertzen jardun ostean, txosten bat egin zuen. Hura oinarri hartuta, Fiskaltzak berak salaketa jarri zuen zigor arloko auzitegian.

Salaketaren arabera, ustez modu jarraituan egin da animaliei tratatu txarrak ematearen delitua, eutanasia masiboak praktikatu da uda garaian, protokoloak errespetatu gabe eta heriotza gozoaren prozedura bete gabe. Zigor prozedura horretan akusazio dira, batetik, Fiskaltza bera, eta, bestetik, herri akusazioa, Fiskaltzari lekukotasunak aurkeztu zizkion pertsonak eskatuta.

Aipatzekoa da Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Animaliak eta Landareak Babesteko Elkarteak kontratu harreman bat dutela –Udalak, 2016. urtean, 170.168 euro jarriko ditu zerbitzu horretarako– eta kontratu horri esker babestuta dauden animaliekin egin izan dela, askotan, animalien aurkako tratatu txarren ustezko delitu hori.

Baldintza agiriaren arabera, kontratua deuseztatzeko arrazoi bat da baimenik gabeko produktuak edo prozedurak erabiltzea, edo zuhurtzirik gabe erabiltzea, osasun publikoari, ingurumenari edo animalien ongizateari kalte egiteko moduan.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak garrantzia kendu zion salaketari, eta adierazi zuen fiskalak ere ez diola kasurik egin auziari eta “kontratua bereganatu nahi duen interesatu” batek jarri duela salaketa.

Horrez gain, adierazi zuen informazioa “komunikabideetatik soilik” iritsi zitzaiola.

Haren jardun guztian elkartearen lana babestu besterik ez zuen egin. Hala ere, adierazi zuen ikusten badute ez dutela betekizunen bat betetzen, bidezko diren neurriak hartuko dituztela.

Gaur egun, Fiskaltzaren salaketa bat eta Ertzaintzaren ikerketa bat daude. Uste dugu gertaera horiek ez direla ondo uztartzen zinegotziak esandakoarekin, alegia, fiskalak ez duela kasurik ere egin.

Salaketa eta ikerketa horiek pertsona batek emandako lekukotasunak aintzakotzat hartuta abiarazi ziren.

Pertsona hori interesduna izatea edo ez, berdin dio. Axola duena da prozesu judizial bat dagoela eta Fiskaltza espedientearen kargu egin dela.

Nahikoa deigarria eta larria iruditzen zaigu hori, behintzat komunikabideetan bil litekeena baino informazio osatuagoa eta salatzailearen ustezko intentzioei buruzko zurrumurruak baino fidagarriagoa behar izateko.

Prozesuan ateratzen den ondorioa edozein dela ere, akusazio partikular agertzeak, hain zuzen ere, informazio hori guztia zuzen-zuzenean lortzeko modua emango luke. Hala, zehazki esan ahal izango da betekizunak bete ote diren, eta bidezko diren neurriak hartu ahal izango dira, zinegotzi ordezkariak iradoki bezala.

Garrantzitsua iruditzen zaigu informazio hori dena izatea, bai Udal Gobernuarentzat, bai udal administrazio eskudunarentzat, bai eta udal taldeentzat ere.

Horregatik guztiagatik, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin ditzala egin beharreko gestioak Udala akusazio partikular gisa sartzeko espedientearen, zuzenean jakin dezan zer eta nola gertatu den eta zer erantzukizun erator daitezkeen prozesu horretatik.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia